

Euskara Sustatzeko

TREBIÑUKO BARRENDEGIKO PLAN

ESTRATEGIKOA

2020-2024

Trebiñuko Barrendegiko Udaletako Euskara Zerbitzua



Aurkibidea

1. Lege Testuingurua... 3-7
2. Metodologia..... 8-10
3. Onespena... 11
4. Helburu nagusia.....11
5. Planaren egitura... 12-13
6. Ardatzak..... 14-15

A. Ardatza: Gizarte erabilera..... 15-17

- A.1. Aisia eta Kirola..... 15-16
- A.2. Arlo sozioekonomikoa... 16-17
- A.3. Kultura eta hedabideak... 17

B. Ardatza: Hitzun berriak... 18-19

- B.1. Haurrak.....18
- B.2. Gazteak.....18-19
- B.3. Familia..... 19
- B.4. Helduak... 19

C. Ardatza: Hezkuntza... 20

- C.1. Trebiñuko Barrendegiko Ikastetxeak 20

D. Ardatza: Administrazioa.....21-22

- D.1. Barne-ekintzak 21
- D.2. Kanpo-ekintzak21
- D.3. Beste administrazioekiko harremanak 21-22

E. Ardatza: Kudeaketa eredia..... 22-24

- E.1. Lidergoa..... 22-23
- E.2. Baliabide ekonomikoak eta finantzabidea..... 23
- E.3. Jarraipena eta ebaluazioa... 23-24

1. LEGE TESTUINGURUA

Hizkuntza politika orok hartutako neurriak gauzatzeko legedia zabal baten babes ezinbestekoa da, babes juridikoa. Baina eremu linguistiko bakoitzaren egoera administratiboak alde nabarmenak eragiten ditu eremu batetik bestera. Hori da, hain zuzen, Trebiñuko Barrendegiaren kasua. Arabar lurraldean egonik, administratiboki Gaztela eta Leonen parte izateak, azken honen legediaren barnean kokatzen du. Trebiñuko Udalak garatzen ari diren hizkuntza politika EAEn garatzen ari denaren parametro antzekoetan lerrokatu arren, lege babes eta beharrezkotasunaren ezarpena ezin da EAeko marko berdinean kokatu. Jarraian azalduko denez, EAeko hizkuntza normalizaziorako prozesuaren araugintza autonomia barneko legegintza ahalmenek osatzen dute eta Trebiñuko Barrendegia marko horretatik kanpo egonik lege testuinguru horren babesik gabe bizi da.

Jarraian, orokortasunetik zehaztasunera, Trebiñuko Barrendegian, euskararen arloan eragiten duten lege eta arauen ibilbidea.

Lehenik eta behin, 1996an, Bartzelonan adostutako *Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalera* joko da, bertako “Hizkuntza komunitate” kontzeptuaren definiziora hain zuzen. Honela dio hizkuntza gutxituen sustapenerako adierazpen honen Atariko Tituluaren 1.1. artikulua:

“1. Adierazpen honen arabera, gizarte oro *hizkuntza-erkidegoa* dela ulertzen da, baldin eta, historian zehar lurralde-eremu zehatz batean kokatuta egonik, eremu hori aitortuta egon zein egon ez, gizarte horrek bere burua herritzat badauka, eta hizkuntza erkidea garatu badu, bere kideen arteko berezko komunikazioaren eta kultura-kohesioaren bide gisa. *Lurralde zehatz bateko berezko hizkuntzak* erreferentzia egiten dio eremu horretan historian zehar ezarritako erkidegoaren hizkuntzari.”

Dokumentazio historikoak eta toponimiak agerian uzten dutenez, Trebiñuk euskara izan du historikoki hizkuntza erkidea, komunikazioaren eta kultura-kohesioaren bide. Hortaz, *hizkuntza-erkidegoa* kontzeptuaren barne sartuko litzateke.

Bestalde, Atariko Titulu horren 1. artikuluko 3.1. atalak honela dio:

“3. Adierazpen honen ondorioetarako ulertzen da taldeak euren lurralde propioan daudela eta hizkuntza-erkidegoaren kideak direla, baldin eta taldeok ondoko baldintzak betetzen badituzte:

- I. Muga politiko edo administratiboengatik euren erkidegoaren gune nagusitik bereizita egotea.”

Hau da, hain zuzen ere, Trebiñuko Barrendegiaren egoera. Egun, Barrendegia euskara hizkuntza propiotzat hartzen ez duen erkidego baten menpe egon arren eta muga

administratiboek bere erkidegotik bereizten duten arren, Deklarazio honek euskal hizkuntza-erkidegoaren kidetzat hartuko luke Trebiñu.

Antzeko edukia biltzen du Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak 1992ko ekainaren 25ean konbentzio-mailarekin onartutako *Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak*. Gutun hau urte bereko azaroaren 5ean sinatu zuen Espainiak beste hainbat kiderekin batera eta 2001ean berretsia izan zen. Bertako II. Zatiko 7. artikuluko 1b) atalak honela dio:

“1. Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzei dagokienez, hizkuntzok erabiltzen diren lurraldeetan eta hizkuntza bakoitzaren egoeraren arabera, ondoko helburuak eta printzipioak izango dira aldean politika, legedia eta jardunaren oinarria:

b) eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza bakoitzak hartzen duen geografia –eremua errespetatzea; hala, beraz, administrazio-banaketak, lehendik hor zeudenak nahiz berriak, ez dira oztopo izango eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza hori sustatzeko.”

Gauzak horrela, Espainiak 1992an (2001ean berretsita) onartu zuen muga administratiboen gainera hizkuntza gutxituen sustapena. Jarraian azalduko denez baina, tokian tokiko lege eta arautegiak ez du barne hartu gutun honetan jasotakoa.

Espainiako legediari dagokionez, 1978ko Konstituzioa da Espainiako hizkuntzak aipatzen dituen lege gorenaren. Atariko Tituluaren 3. artikulua honela dio:

“2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan berauen Estatutoei dagozkien eran.

3. Espainiako hizkuntza mota ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.”

Beraz, konstituzioaren arabera, gaztelaniaz bestelako hizkuntzak errespetatu eta babestuko dira, baina ofizialtasun ezarpenak Autonomia Erkidegoen Estatutuaren jasoko dira. Eta horrek eragiten du hain zuzen ere, Trebiñuko Barrendegiko euskararen ofizialtasun eza.

Trebiñuko Barrendegia geografikoki arabar lurraldez inguratua egonik ere, administratiboki Gaztela eta Leongo Erkidegoaren parte da, eta ondorioz, Gaztela eta Leongo Estatutuak arautzen ditu bertakoak. Baina zer dio Estatutu honek bertako hizkuntzen inguruan?

Hona Gaztela eta Leongo Estatutuaren Atariko Tituluaren 5. artikulua gaztelaniaz bestelako hizkuntzen inguruan dioena:

“2. Leondarra berriaz babestuko dute erakundeek, Erkidegoaren hizkuntza-ondarearen barruan duen balio bereziagatik. Bere babesa, erabilera eta sustapena arautuko dira.

3. Galiziera erabili ohi den lekuetan errespetatu eta babestuko da.”

Leondarra eta galiziera dira beraz, Gaztela eta Leongo Estatutuak gaztelaniarekin batera aipatzen dituen hizkuntza bakarrak. Ez die ofizialtasun izaerarik ematen, Gaztela eta Leongo hizkuntza ofizial bakarra gaztelania baita. Sustapen eta babeserako neurriak hartuko direla aipatzen da, baina Konstituzioak Estatutuari esleitzen dion ofizialtasun izendapenak egiteko ahalmena ez da baliatzen.

Beraz, ofizial izan gabe ere, leonera eta galiziera Gaztela eta Leongo lurralde batzuetako hizkuntzatzat aitortzen dira, euskarak ez du aipurik ere. Hortaz, Trebiñuko hizkuntza berreskurapen eta normalizazio prozesuak lege babesik ez du. Ezin dira administrazio arloan neurriak hartu edo beharrezkotasunak ezarri. Eta guzti horren gainetik dagoena, trebiñar euskaldunek ez dute euskararen gaineko hizkuntza eskubiderik, euskara ez baitago lege eta administrazio aldetik bertako hizkuntzatzat aitortua.

EAEko erakundeek hizkuntza politikarekiko harremani dagokienez, Trebiñuko Udalak 2017an, Eusko Jurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen Bulego Publikoak sinatutako euskararen sustapenerako lankidetzaren hitzarmenetik kanpo geratu dira. “Euskararen eremu osoa” erakundeek arteko lankidetzaren marko honek, helduen irakaskuntzan, erabileraren sustapenean, gogoeta eta ikerketaren esparruan eta hizkuntza politikarako Europako Finantziarioaren kudeaketan, lankidetzaren aritzeko neurriak ezartzen ditu. Trebiñuko Barrendegiko erakundeak bada, ez dira akordio horren parte izan. Eta horren ageriko ondorioetako bat, VI. Inkesta soziolinguistikoak erakusten digu. Aipatutako lankidetzaren sare horren ekintzetako bat, hiru eremuetako inkesten datuen bateratzea izan da “Euskararen eremu osoa” izeneko argitalpenarekin ezagutarazi den ikerketa. Trebiñuko datuak baina, ez dira bertan jasotzen eta ondoren azalduko dugun bezala, 2016an ez da ikerketarik egin Trebiñar lurraldean.

2018an, Arabako Foru Aldundiak eta Burgosko Aldundiak zazpi arlotan lankidetzarako hitzarmenak sinatu zituzten zerbitzuen antolaketarako. Hitzarmen horietako bat “Kultur ekintzak, hezkuntza eta euskararen normalizazioa eta zabalkundea” izan zen. Hitzarmen honen bitartez, hiru alor hauetan, bi aldundiekiko harremana eta bien parte hartzea bermatuko zen. Hauxe dio euskararen inguruan:

“Actividades de cooperación técnica y de fomento del desarrollo social en el Enclave de Treviño, mediante la permeabilidad de las lenguas que permita una mejor socialización de los ciudadanos, y en especial el uso y utilización del euskera, prestadas por el servicio de euskera.

- Convocatoria de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, cuya finalidad es cooperar en la asistencia técnica del euskera en las Cuadrillas del Territorio Histórico de Álava, o en los Ayuntamientos de Treviño.
- Convocatoria de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, cuya finalidad principal es la organización, desarrollo y ejecución de programas de socialización del euskera en el Territorio Histórico de Álava y en el Enclave de Treviño, realizadas por los Ayuntamientos y Cuadrillas.

- Ayudas económicas, en régimen de concurrencia competitiva, destinadas a la alfabetización de personas adultas.
- Contribución a la socialización del euskera en el Enclave de Trebiño dirigido a entidades locales.”

Beraz, bi aldundiek hizkuntza politika eta normalizazio ekintzak garatzeko diru-laguntza babesa eta sustapen instituzionala aitortzen dute hitzarmen honetan. Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoko entitateei luzatutako diru-laguntzen sisteman, asistentzia teknikoaren zirkuitoan edo sustapen ekintzen markoan barne hartzen du Trebiñuko Barrendegia hitzarmen honen bitartez. Hitzarmen hau sinatu aurretik hasitako ekinbidearen ofizializazioa dakar txosten honek, baina lege esparruari ez dio aipurik egiten.

Euskara beraz, ez da hizkuntza ofiziala Trebiñuko Barrendegian. Trebiñuko euskararen normalizazio prozesua Udalek hartzen dituzten unean uneko erabaki eta neurrien arabera da, baina babes juridikorik gabekoa.

2012ko Azterketa Soziolinguistikoa

Trebiñuko Barrendegiko lehenengo inkesta soziolinguistikoa 2002an egin zen. Lehenengo inkesta haren ostean, 2007an egin zen hurrengoa eta azkena, egun esku artean ditugun datuk biltzen dituen azkena, 2012an. 2012az geroztik ez da inkestarik egin Trebiñuko Barrendegian, gainontzeko euskararen lurraldeetan bost urtean behineko epeak mantendu diren bitartean.

Gauzak horrela, Trebiñuko egoera soziolinguistikoaren datuak aurkezteko 2012ko datuak aipatuko ditugu. Ia hamarkada bat igarota eta inguruko lurraldeen garapena ikusita, hemen aurkeztutako kopuruak nabarmen altuagoak izango direla ondoriozta genezake, azken hamarkada honetako belaunaldi berrien euskara ezagutza eta erabilera nabarmen hazi baita.

2012ko datuen arabera, Barrendegiko biztanleen %22 zen elebiduna. Horietaz gain, biztanleen %17 elebidun hartzailea da, hots, euskara zerbait hitz egiteko gai dira. Aipatzekoa da, hamarkada batean, 2002tik 2012ra bitartean, elebidunen kopurua bikoiztu egin zela, beraz, goranzko joera horrek ia hamarkada bat igaro den honetan, egun datuak nabarmen altuagoak izango direla pentsarazten digu.

Adina aintzat harturik, 16 urtetik beherakoen artean %65 ziren elebidunak, 16 eta 24 urte bitartean %42 eta 25 eta 34 urte bitartean %23. Beraz, belaunaldi berriak dira datuen hazkundera eragin dutenak.

Jabekuntza bideari dagokionez, %19k euskara izan du lehen hizkuntza, %60ak irakaskuntza-sistemaren bitartez ikasi du eta %21ak bere kabuz ikasi du irakaskuntza-sistematik at (24 urtetik gorakoek bereziki). 2002ko datuekin alderatuz, irakaskuntza-sistemaren bidez ikasten dutenak ia bikoiztu egin dira hamarkada batean eta familia bidez edo irakaskuntza-sistematik at ikasi dutenen kopurua jaitsi egin da.

Hizkuntzarekiko jarreraren inguruko galderak ere jaso zituen inkestak “Euskara sustatzeari buruzko iritziak” izeneko atalpean. 15 urtetik gorakoei soilik egin zitzaizkien galderak eta %39k erantzun zuten interes handia edo nahikoa zutela, interes pixka bat zutela erantzun zuen %23arekin batera. Hizkuntza gaitasuna eta jatorriak ziren erantzun hau baldintzatu zuten faktoreak.

Jarreraren arloan kokatu genezakeen beste datu bat, haurren eskolatzearen ingurukoa da. Jakina denez, Trebiñuko Eskola Publikoan, Gaztela eta Leongo sarekoa izanik, euskara ez da irakasgai gisa ere eskaintzen. Egoera horren aurrean, haur trebiñarren gehiengoak Gasteiz eta Langraitzera jotzen du euskarazko ereduetan ikastera. 2012ko inkesta soziolinguistikoan, Trebiñuko Eskola Publikoan zein eredu nahiko luketen galdetu zitzairen inkestatuei. Eredu hirueledunaren (euskara, gaztelania, ingelesa) alde agertu zen %53a, %18 euskarazko ereduaren alde, %13 gaztelania eta ingelesezko ereduaren alde (euskara irakasgai) eta %14 gaztelania eta ingelesezko ereduaren alde (euskararik gabe).

2. METODOLOGIA

Dagoeneko ia hamarkada bat igaro da Trebiñuko Udaletan Euskara Zerbitzua martxan jarri zenetik. Egokitzapen eta ereite urteak izan dira hauek, Trebiñuko egoera administratiboaren esparruak ahalbidetzen dituen mugak ezagutu eta neurtzeko urteak. Arestian aipatutako lege egoerak eta euskara bezalako hizkuntza gutxitu batek Trebiñun duen babes juridikoa aintzat hartuta hizkuntza politikaren neurriak muga edo oztopo horien joko eremuan garatu dira.

Planifikazio estrategikoaren diseinu eta inplementazioa, finean, araugintzaren garapena besterik ez da. Lege eta dekretuetan onartutakoa garatzeko neurri zehatzen garapena da planifikazioa. Horrela zehazten du esaterako 86/1997 dekretuak EAEn. Trebiñuko Barrendegian baina, aipatu dekretuak ez du eragiten eta ez dago hizkuntzaren normalizaziorako lege edo araurik.

Gauzak horrela, Udalen borondatearen araberrako neurriak hartu izan dira, baina ez arauen garapen gisa, borondatearen neurri bezala baino. Horrela, borondatearen lausotasunean, unean uneko beharrei erantzun zaie, etorkizunerako planifikazioan eragin beharrean. Une oro aintzat hartu beharreko ezaugarria da Trebiñuko Udalen gaitasun ekonomikoa eta orohar baliabideen muga. Eremu zabala izanik ere, populazio urriak Udalen indarra mugatzen du eta horrek hizkuntzaren ikuspegitik zailtasun gehigarriak sortzen dizkio normalizazio prozesuari.

Zailtasunak zailtasun, azken hamarkadetan Trebiñuko euskalgintzak eta azken urteetan Udalek gehitutako Euskara Zerbitzuak itxaropenerako bidea abiatu dute. Inkesta soziolinguistikoaren datuak ikustea besterik ez dugu, euskararen zabalkunderako joera nabarmen bat ematen ari dela ikusteko.

Egun, euskaldunen kopurua zein den aintzat hartuta, euskararekiko jarreraren bilakaeraren aldeotasunerako joera ikusita eta batez ere, belaunaldi berrien ezagutza eta inertziak ikusita, hazia ereinda dagoela esan dezakegu. Horrek baina, erantzukizun nabarmena esleitzen die erakundeei, gizartean egoera linguistiko berri baten premiei erantzun behar baitzaie.

Eta marko horretan, hain zuzen, kokatzen da esku artean dugun Plan Estrategikoa. Orain arte, Udaletako Euskara Zerbitzuan aritu diren langileek eta Udalak berak, urtez urteko planifikazioa osatu dute, "Kudeaketa Plana" ere izenekoa. Lerro estrategiko batzuk ere zehaztuak egon dira, azken urteetako lanaren jarraibide. Baina orain arteko epe motzerako planifikazioarekin batera, 2020an, epe ertainerako planifikazioa osatzeko une aproposa dela uste dugu.

Prozesua


Plan Estrategiko hau Udalen hizkuntza normalizazio prozesua gidatzeko sortu da. Tresna praktikoa izatea du helburu, zehaztasunera joatea, benetan erabilgarria izateko asmoz. Erabiltzaile nagusiak Trebiñuko bi Udalak izango dira, haien eginkizunetarako planifikazioa biltzen baitu. Baina Udalekin batera, Trebiñuko euskalgintzan edo euskararen eragiten duten eragile guztiak biltzea du helburu, haientzat ere bide orria izan dadin.

Helburu horretarako, Arabako Foru Aldundiak bere *Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa Araban 2019-2022* izeneko lanerako jarraitu prozesu metodologikoa jarraitu dugu gurean ere: IAP (Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea). Talde hausnarketan osatu ditugu ondorengo ataletan bildutako neurriak. Helburuak, ekintzak eta estrategiak kontraste bidez eraiki dira, Udaletako Euskara Zerbitzuaren gidaritzaz gain, Trebiñuko euskalgintzako partaideen ekarpenekin eta Udaletako zinegotzien osatzearekin. Parte hartze sozialaren bermea ezinbestekoa da tresna erabilgarri bat osatu nahi bada.

Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea diogunean, plan honen diseinuan parte hartu duten eragile eta norbanakoak planaren sortzaile izateaz gain, planaren arduradun ere izango direla esan nahi dugu. Diseinuan parte-hartzeak inplikazioa dakar eta horrek erantzukizuna. Plan honek hainbat arlotan eragitea du helburu eta arlo horietako kide diren hartzaile eta inplikatu oro planaren garapanerako subjektu aktibo izango dira.

Prozesu honetan, Udaletako Euskara Zerbitzuak EMUN aholkularitza enpresaren laguntza jaso du, hiru saioekin. Saio hauek kontrasterako saioak izan dira, prozesuaren nondik norakoak bide onetik zihozela egiaztatzeko saioak. Udaleko zinegotziekin eginiko bileratik ateratakoak eta galdetegietatik jasotako emaitzak interpretatzeko laguntza izan da.

Prozesuak bost fase nagusi izan ditu:



Trebiñuko Udaletako Euskara Zerbitzuak planaren egitura dena diseinatu zuen lehenengo. Plana osatzen duten atalak barrendegiko hizkuntza egoeran eragiten zuten lehenetsitako atalak dira. Esan bezala, txosten honek tresna erabilgarri izatea du helburu eta hurbileko helburu ukigarriak lehenestea erabaki da, funtzionaltasunaren bilaketan.

Lehenengo zirriborroa osatuta, bi Udaletako zinegotzietan luzatu zitzairen saio batean parte hartzeko proposamena. Trebiñuko Konderriko hiru zinegotzik eta Argantzongo alkateak parte hartu zuten saio honetan. Euskara Teknikariak diseinatutako egitura aurkeztu ondoren, zirriborro horren osaketa lanei ekin zitzairen. Zinegotzien ekarpenak bildu ziren arloz arlo.

Behin Udaleko ordezkarien ekarpena jasota, Trebiñuko Euskalgintzan erreferenteak izan diren elkarte, entitate edo norbanakoengana jo genuen. Hauekiko hartu emana galdetegi bitartez (*ikusirik) osatu genuen.

Puntu honetan, dagoeneko bildua genuen plana osatzeko edukia izango zena. Euskara Zerbitzuak, Udaleko ordezkariak eta arlo sozialean diharduten eragileek ekarpena egin zutenean, erredakzioari ekin zion Euskara Zerbitzuak, 2. zirriborroaren osaketarako.

Plana osatuta zegoela, kontrasterako saio bat adostu zen Roberto Gonzalez de Viñasprekin. Lanbidez hizkuntza-teknikari eta euskaltzain izateaz gain, Trebiñuko toponimiaren inguruko hainbat lan argitaratu ditu eta Trebiñuko eragileetan parte hartzaile aktiboa izan da. Trebiñurako Plan Estrategiko baten osaketan figura garrantzitsu bat izan zitekeela pentsatu eta harekin kontrasterako saio bat egitea erabaki zen.

3. ONESPENA

Trebiñuko Konderriko Udalean, 2020ko azaroaren 20an.

Argantzongo Udalean, 2020ko abenduaren 29an.

4. HELBURU NAGUSIA

Trebiñuko hiztunen sareak aktibatzea, biztanleen euskalduntzea eta lurraldean euskaraz bizi ahal izateko baldintzak sortzeko neurrien bide orri bat sortzea. Udalen normalizazio prozesurako neurrien pausokako planifikazioa diseinatzea, maila teknikoko erabakiak zein maila politikoko aurrerapausoen norakoa finkatzea.

Hurrengo ataletako puntuetan ikusi ahalko den bezala, Trebiñuko egoera administratibo bereziak maila teknikoko ekintzen eta arlo politikotik egin litezkeen arteko loturak eragiten ditu. Kasu batzuetan, arlo teknikitik bideratu beharreko ekintzek aurretiazko lanketa edo lorpen politikoa beharko dute. Planaren erabilgarritasun eta funtzionaltasunari jarraiki, arlo politikoa eragiten duten balizko ekintza eta neurriak ere bildu dira.

5. PLANAREN EGITURA

2020-2024 aldirako plana jarraian datozen bost atalek osatuko dute. Atal horiek baina, hurrengo oinarri orokorren gainean sendotuko dira. Lehenik eta behin, lurraldetasunari dagokionez, plan hau Trebiñu eta Argantzongo Udaletan, hau da, Trebiñuko Barrendegi osoan garatuko da. Sarritan, Barrendegi osorako ekintzekin edo programekin eragitea zaila izaten da dispertsio geografikoa eta lurraldearen zabaltasuna dela eta. Hala ere, eremu batzuetatik besteetarako aldeak egon badauden arren, norabide bera markatu daiteke Barrendegi osorako. Era berean, Trebiñu herria eta Argantzongo izango dira ekintzen garapenerako nukleo nagusiak, baina Barrendegi osoan garatzeko ekintzak diseinatuko dira.

Aurreko ataletan esan bezala, Udaletako Euskara Zerbitzuak diseinatutako plana da hau eta Udalen hizkuntza politikaren garapenerako tresna bezala sortu da. Hala ere, Trebiñun euskararen sustapenean ari diren eragile guztientzako gida izatea ere helburu izango du. Horregatik, plan honen bitartez, eragile eta norbanako guztiei Euskara Zerbitzuarekin hartu emanean egoteko gonbita luzatzen zaie.


Eusko Jaurlaritzak VI. plangintza aldia osatzeko emandako jarraibide orokorren artean aipatzen da *Lidergo partekatua* delakoa, eta molde horretan eraiki nahi da Trebiñuko planifikazioa ere. Euskara Zerbitzua lidergoan edo gidaritzan egon arren, ezinbestekoa izango da eragileek eta herritarren parte hartze aktiboa proposatutako ekintzen garapenean. Eta euskalgintzaren arloko eragileen parte hartzeaz gain, *lidergo partekatua* babes instituzionala ere ezinbesteko osagai du. Udal ordezkarien inplikazioa eta babesa oinarrizkoa izango da plan hau garatu nahi bada. Euskara Zerbitzuak proposamenak eta gauzatzeak egingo ditu, baina erabakiak eta onespenez ordezkarien balizko babesean egongo dira.

Helburu, ekintza eta adierazleei dagokienez, ahalik eta zehaztasun estuenera hurbildu nahi izan dira neurriak. Sarritan, gisa honetako planifikazioetan abstrakziora eta teorizaziora mugatu ohi dira neurriak. Lan honetan baina, helburu eta ekintza ezagun eta ukigarrietara hurbildu nahi izan dugu, tresna erabilgarri baten bilaketan. Hizkuntza politikaren gauzapenerako norabidea markatuko duen bide-orria izatearekin batera, Trebiñuko Udalek euskararen sustapenerako egin dezaketena, hau da, haien eragin esparrua zein den finkatuko du. Helburuetan, anbizio neurtu bat ezarri da, egoera ezagututa handinahikerietan ez erortzeko.

Azkenik, planaren izaera erabat baldintzatu eta bereizten duen oinarria aipatuko dugu. Jakina denez, Trebiñuko barrendegian euskara ez da hizkuntza ofiziala. Hala ere, euskararen sustapen politikak euskara ofiziala den lurraldeetan gauzatzen diren politiken erritmo eta bide berean zehazten dira. Bestela esanda, Mendialdean edo Arabako Errioxan euskara ofiziala izanik eta lege estatus ezberdina izanik garatzen dituzten hizkuntza politikarako neurrien antzeko bidea jarraitzen da Trebiñun. Trebiñuko helburu eta ekintzak Arabar lurraldearekin koordinazioan osatzen dira eta Arabako korronteei eraginak daude. Baina jakina denez, korronte horiek euskara

ofiziala ez den lurraldera ekartzea zail izaten da sarritan eta horrek Trebiñu *izartxodun lurralde “gehigarri” izatea eragin ohi du. Hortaz, plan honek egoera berezi hori une oro izango du gogoan, berezitasunaren oroigarria, alegia.

6. Ardatzak



Bost ardatzez osatua dago Trebiñuko Barrendegirako 2020-2024 aldirako Plan Estrategikoa. Gainontzeko euskal lurraldeen planifikazio estrategikoetan zutabe izan ohi diren *Gizarte-erabilera*, *Hiztun Berriak* eta *Kudeaketa Eredua* ditugu batetik eta Trebiñuren egungo egoera administratiboaren ondorioz, planera ekarri ditugun *Hezkuntza* eta *Administrazioaren* arloa bestetik. Azken bi arlo hauen kasuan, hezkuntzan Gaztela eta Leongo gobernuaren hezkuntza sistemaren barnean dago Trebiñuko irakaskuntza publikoaren arloa eta administrazioan ere Gaztela eta Leongo araudiari jarraiki, euskara ez da administrazioaren barnean aintzat hartzen. Gauzak horrela, bi arlo hauetan, euskararen sustapenerako har daitezkeen neurriak Trebiñuko bi Udalen borondatearen menpe egonik, Plan Estrategiko honetan eragin gune gisa bildu dira.

A Ardatza: GIZARTE ERABILERA

Helburu orokorra: euskara erabiltzea ez dago soilik hiztunaren esku, erabilera ahalbidetuko duten hainbat faktorek lagundu behar dute. Faktore horiek euskara erabiltzeko aukera emango duten uneak eta guneak izango dira eta hauek eragiteko neurriak biltzen ditu atal honek.

A.1. AISIA ETA KIROLA

A.1.1. Trebiñuko elkarteekin hizkuntza irizpideak eta euskara sustatzeko baliabideak landu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Elkartek, Kirol-taldeak.

A.1.1.1. Elkartegintzari euskara sustatzeko baliabideen katalogoa zabaldu: Euskara Zerbitzuaren Itzulpen eta laguntza zerbitzuaren berri eman.

A.1.1.2. Trebiñuko Udalek Irabazi Asmorik Gabeko Elkarteei zuzendutako diru-laguntza prozeduretan, hitzarmenetan eta bestelako deialdien oinarrietan hizkuntza-irizpide batzuk bete beharra txertatu.

A.1.1.3. Haur eta gazteekin ari diren kirol elkarteetan euskararen erabilera sustatzeko elkarlanari ekin.

A.1.2. Hurrek aisialdian euskara erabili ahal izateko espazioak mantendu eta berriak sortu: eskolaz kanpoko ekintzak.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Aisialdi enpresak, Hezitzaile-eskolak, Txingoka elkarteak, Trebiñuko Konderriko Eskola Publikoa, Kirol-taldeak.

A.1.2.1. Udalek antolatutako aisialdirako ekintzen begirale eta koordinatzaileen euskararen sozializatorako formazio saioak. "Hau Jolasa baino gehiago da" gidaren zabalpena.

A.1.2.2. Trebiñuko ludoteka sarea mantendu.

A.1.2.3. Trebiñuko Konderriko Udalak antolatu Udalekuetan hizkuntza irizpideetan sakondu.

A.1.2.4. Argantzongo musika eskola, udalekuak eta eskolaz kanpoko ekintzak diruz lagundu.

A.1.3. Trebiñun aisialdian eragiten duten elkarteekin elkarlanean jardun.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Txingoka elkarteak.

A.1.3.1. Txingoka elkartearekin elkarlanerako bideak ezarri: elkartearen kudeaketarako laguntza teknikoa.

A.1.4. AFA eta EJ-ren programetan eta deialdietan haur eta heldu trebiñarrak hartzaileen artean dauden aztertu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua.

A.1.4.1. Haur eta gazteentzako estrategikoak diren programak aztertu lehenengo, gutxika deialdi ezberdinen jarraipena eginaz.

A.2. ARLO SOZIOEKONOMIKOA

A.2.1. Merkataritzan eta ostalaritzan, zerbitzu hizkuntzan euskararen sustapenerako neurriak hartu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua.

A.2.1.1. *Giro* onean kanpainarekin egin bezala, Trebiñuko Udaletako Euskara Zerbitzuaren laguntza bideak ezagutarazi. Euskara Zerbitzuaren *zerbitzu-katalogoa* diseinatu eta hedatu.

A.2.2. Enpresen eredugarritasuna landu euskararen erabilerari dagokionez.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua (Lanabes eta Bai Euskarari ziurtagiriarekin lankidetzan).

A.2.2.1. *Trebiñu Sagardotegiak* hasitako eredugarritasunaren bidea zabaldu.

A.2.2.2. *Lazarraga* sariak.

A.2.3. *Euskaraldiak* irekitako bidetik, enpresa aktibatuetan hizkuntza neurriak hartu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua (Lanabes eta Bai Euskarari ziurtagiriarekin lankidetzan).

A1.5.1. *Bai Euskarari* Ziurtagiria-ren bitartez pilotajea ekiteko enpresa eredugarri baten identifikazioa.

A1.5.2. *Lanabes* egitasmoaren bitartezko baliabideak ezagutzera eman.

A.3. KULTURA ETA HEDABIDEAK

A.3.1. Arabako euskarazko tokiko hedabideen zabalkundean lagundu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Arabako Hedabideak.

A.3.1.1. ALEA aldizkariaren harpidetzak mantendu eta berriak sortu. Aldizkaria ezagutzera emateko kanpainetan lagundu.

A.3.1.2. Arabako *Euskararen Agenda* zabaldu eta elikatu.

A.3.2. Herritarren elkargune diren espazioetako (liburutegiak, gizarte-etxeak...) materialen artean, euskarazko argitalpenak bermatu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua.

A.3.2.1. Harpidetzak (adb. *Gaztezulo*).

A.3.3. Bi Udalerrietako kultur eskaintza egonkortzea.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Kultura Zerbitzua.

A.3.3.1. Urteko planifikazioa osatu bi udalerrietako kultur programaziorako dagoeneko urterokoak bilakatu diren ekintzekin eta programa osatzeko berriekin.

A.3.3.2. Kultur egitasmoetarako aurrekontua zehaztu.

A.3.3.3. Plangintza aldia garatu bitartean sortu daitezkeen liburutegietan, euskarazko corpusa bermatu.

A.3.3.4. Bi udalen elkarlanean diru-laguntzetan euskara sustatzeko neurriak hartzea puntuazio gehigarriarekin baloratzeko aukera aztertu.

A.3.4. Arabako Foru Aldundiko Kultura Zerbitzuarekin elkarlana mantendu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, AFAko Kultura Zerbitzua.

A.3.4.1. AFAko Kultura Zerbitzuaren programazioan euskarazko kultur eskaintzaren zabalpenerako elkarlana mantendu.

B Ardatza: Hiztun Berriak

Helburu orokorra: euskararen ondorengotaratzean belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ezinbesteko tresna izanik ere, Trebiñu bezalako lurralde batean, hiztun berrien gureganatzea helburu lehenetsia da. Azken hamarkadetan horrenbeste fruitu eman dituen helduen euskalduntzearekin batera, belaunaldi berrien euskalduntzean jarri da fokoa. Trebiñuko haur gehienak eskolan euskalduntzen dira egun, hiztun berri horiek hiztun oso egiteko jautsian, eskolatik kanpoko alderdi hainbat sustatuko dira.

B.1. HAURRAK

B.1.1. Haur euskaldunak hiztun oso bihurtzeko neurriak aisialdian (ikus. A.1. atala).

Arduradunak: Euskara Zerbitzua.

B.1.1.1. Udalek antolaturiko aisialdiko programak Euskara Zerbitzuak kudeatu, euskaraz eskainiak direla bermatzeko.

B.1.2. Trebiñuko Eskola Publikoan ikasten duten haurren euskalduntzea sustatu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Euskaltegiak, Trebiñuko Konderriko Eskola Publikoa, Guraso elkarteak.

B.1.2.1. Udalak eskolaz kanpoko ekintza bezala eskaintzen duen "Euskara Ikasiz" programaren egokitzapena eta jarraipena.

B.1.2.2. Trebiñuko Eskola Publikoan ikasten duten haurren eta Trebiñutik kanpo ikasten duten haurren elkar ezagutzarako egitasmoak sortu.

B.2. GAZTEAK

B.2.1. Gazteentzako euskara zentroan duten ekintzan antolatu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua.

B.2.1.1. Argantzongo zentro sozio-kulturalean gazteekin adostutako kultur edo formazio programazioa osatu.

B.2.2. Gazteak euskalgintzan rol aktibo batera erakarri.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, unean uneko Trebiñuko antolakuntza batzordeak.

B.2.2.1. Euskararen arloko ekimenen antolaketan parte hartzen duten gazteekin elkarlana mantendu.

B.3. FAMILIA

B.3.1. Guraso berrien hizkuntzaren transmisioan eragin.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Argantzón Ikastola.

B.3.1.1. Familia euskaldunen sarea osatu. Familia mintzalaguna taldea osatu.

B.3.2. Familiengan euskarazko hizkuntza-ereduen garrantziaren jabe-kuntzan eragin.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Argantzón Ikastola, Armentia-ko Bentetako Haurtzaindegia, Trebiñuko Konderri-ko Eskola Publikoa.

B.3.2.1. *Merezi du!* kanpaina.

B.4. HELDUAK

B.4.1. Helduak euskalduntzeko programak sustatu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Euskaltegiak, Udaletako ordezkari politikoak.

B.4.1.1. Ikasturte hasieran Trebiñun helduen euskalduntzerako taldeak sortzeko kanpaina abiatu. Arabako Euskara Zerbitzuek elkarlanean osatutako kanpainarekin eta AEKrekin lankidetzan.

B.4.1.2. Helduen euskalduntzerako laguntza deialdiak mantendu eta sortu. Trebiñuko Konderri-ko Udalaren Ordenantza mantendu eta Argantzonen Ordenantza sortu.

B.4.2. Trebiñuko heldu euskaldunak eta euskaldun hartzai-leak aktibatu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua.

B.4.2.1. Hizkuntza zentroan izango duten egitasmoak: kultur ekintzak, formazioa, gurasoei begirakoak... (2018an, JOSTABIrekin eta Ane Gebararen gurasoentzako saioekin hasitako bidetik).

B.4.2.2. 2019-2020 ikasturtean sortu berria den helduen talde-*tik tiraka mintzalagun* taldearen sortzeko aukerak aztertu.

C Ardatza: Hezkuntza

Helburu orokorra: Trebiñuko familiek hobesten dituzten hizkuntza ereduen lorpenerako neurriak hartu eta Trebiñuko irakaskuntza eskaintza eredu guztietako haurrak euskarara hurbilduko dira, bakoitzaren behar eta mailaren arabera neurriekin.

C.1. TREBIÑUKO BARRENDEGIKO IKASTETXEAK

C.1.1. Trebiñuko Eskola Publikoaren hizkuntza ereduaren gaineko gogoeta.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Udaletako ordezkari politikoak.

C.1.1.1. Trebiñuko Eskola Publikoaren hizkuntza-ereduan euskara txertatzeko eskaera ofiziala aurkeztea.

C.1.1.2. Trebiñuko Eskola Publikoko haurren euskararekiko oinarrizko harremana bermatzeko programa (ikus. B.1.2.1. atala).

C.1.1.3. Zuzendaritzarekin elkarlanean euskararekiko harremanaren hastapenatarako kultur ekintzak antolatu.

C.1.2. Argantzón Ikastolaren sustapenean lankidetzatza.

Arduradunak: Argantzongo ordezkari politikoak, Argantzón Ikastola.

C.1.2.1. Argantzón Ikastolaren sustapen ekonomikorako diru-laguntza bideak lortzea.

C.1.3. Armentiaño Bentetako Haurtzaindegia

Arduradunak: Euskara Zerbitzua.

C.1.3.1. Armentiaño Bentetako Haurtzaindegiaren hizkuntza ereduaren jarraipena egin, hiru urtean behineko matrikulazioaren azterketa txosten baten bitartez.

C.1.3.2. Zuzendaritzarekin elkarlanean kultur ekintzak antolatu.

D Ardatza: Administrazioa

Helburu orokorra: Trebiñuko Udalen borondatearen araberako neurriak hartuko dira Udalaren hizkuntza irizpideak zehazteko eta herritarrekiko hartu emana euskalduntzeko.

D.1. BARNE EKINTZAK

D.1.1. Udalaren hizkuntza irizpideak ezarri eta sistematizatu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Udaletako ordezkari politikoak.

D.1.1.1. Udal bakoitzean “Barne-zirkular” bat edo “Lan-dokumentu” bat osatu, Udalaren hizkuntza irizpideak bilduko dituen (lehenengo pausua: herritarrentzako dokumentu estandarizatuak elebietan).

D.1.1.2. “Barne-zirkularra” edo “Lan-dokumentua” osatuta, irizpideak betetzeko jarraipena egin.

D.1.1.3. Administrazio batzordeei Euskara Zerbitzuaren eta itzulpenetarako aukeraren berri eman.

D.2. KANPO EKINTZAK

D.2.1. Udalaren eragin esparruan hizkuntza irizpideak ezartzea.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Udaletako ordezkari politikoak.

D.2.1.1. Udalaren kontratazioetan hizkuntzaren arloa aintzat hartu, batez ere haur eta gazteei zuzendutako kontratazioen kasuan, beti ere ahal den neurrian.

D.2.1.2. Udalen menpeko hizkuntza paisaia elebietan egon dadin bermatzeko neurriak eta jarraipena. Orain arte abiatutako bidetik barne-errotulazioan edo kale-izendegian egon litezkeen aldaketak elebietan jarri. Herrietako sarrera eta irteera kartela elebietan jartzeko aukera aztertu. Euskarazko toponimoak ere jasoko dituzten Udal-mapak sortu.

D.3. BESTE ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANAK

D.3.1. Euskararen sustapen eta Kultur ekintzarako diru-laguntza lerroetan Trebiñu barne hartzea.

Arduradunak: Udaletako ordezkari politikoak.

D.3.1.1. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza edo sustapen lerroetan sartzea.

D.3.2. Ikerkuntza eta Estatistika lerroetan Trebiñu barne hartzea.

D.3.2.1. Eusko Jaurlaritzaren Inkesta Soziolinguistikoa gainontzeko Euskal Herrien epealdietan egitea.

D.3.3. Trebiñuko euskararen normalizaziorako prozesua akordio eta koordinazio sareetan aintzat hartzea.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Udaletako ordezkari politikoak.

D.3.3.1. Arabako Euskara Zerbitzuen sarearekin lankidetzeta.

D.3.3.2. Arlo politikoko akordio markoetan Trebiñu barne hartzeko eskaerak gauzatu edo erabaki politikoak hartzea.

E Ardatza: Kudeaketa eredua

Helburu orokorra: batetik, *lidergo partekatuaren* irizpideari jarraiki, Euskara Zerbitzuaren eta ordezkari eta eragileen arteko elkarlana sustatuko da. Eta bestetik, Plan honetan zehaztutako norabidea aldiro ebaluatu eta jarraituko da.

E.1. LIDERGOA

E.1.1. Udaletako Euskara Zerbitzuak Euskara Sustatzeko Plan Estrategiko honen lidergoa partekatu euskalgintzarekin, eragileekin eta norbanakoekin.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Udaletako ordezkari politikoak, Elkartek, Eskolak.

E.1.1.1. Planean zehar aipatutako egitasmoak euskalgintzaren arloko kideekin elkarlanean antolatu. Eragileei dagozkien ardurak banatu.

E.1.1.2. Eragile gisa joka dezaketen norbanakoen aktibazioan eragin (gazte taldeak, etab.) eta egitekoak arlo teknikitik erraztu.

E.1.1.3. Herritarren inplikazioan eragiteko, elkartean, eragileen edo norbanakoen proposamenak sustatu eta gauzatu.

E.1.1.4. Zeharlerrotasunerako bidean, Udaleko gainerako zerbitzuei Plan honen berri eman eta arlo bakoitzerako irizpideak zehaztu.

E.1.2. Trebiñuko Udaletako ordezkari publikoek Plan honetan proposaturiko helburuak bere egin.

Arduradunak: Udaletako ordezkari politikoak.

E.1.2.1. Plan Estrategikoan Udaletarako eta arlo politikorako hartutako helburuetan ordezkarien inplikazioa. Euskara Zerbitzuaren eta ordezkari publikoen arteko lankidetzaz sustatu.

E.2. BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA FINANTZABIDEA

E.2.1. Trebiñuko Barrendegiko Plan Estrategikoa garatzeko baliabide ekonomikoak ziurtatu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua, Udaletako ordezkari politikoak.

E.2.1.1. Plan Estrategiko honetan bildutako neurriak gauzatzeko Udalen aurrekontuetan gastuak aurreikusi edo planifikatu.

E.2.1.2. Trebiñuko Barrendegiko Plan Estrategikoa gauzatzeko finantzabide berriak aztertu (Eusko Jaurlaritzaren Euskara Sustatzeko diru-laguntzak, esaterako).

E.2.1.3. Egungo finantzabideen gaineko hausnarketa: AFAreko hitzarmenaren kopurua, Euskara Teknikariaren lan-jardunaldia, etab.

E.3. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

E.3.1. Trebiñuko Barrendegiko Plan Estrategikoaren gauzapena, norabidea eta betetze-maila neurtu eta une oroko jarraipena bermatu.

Arduradunak: Euskara Zerbitzua.

E.3.1.1. Urtero, martxoaren 31a baino lehen, urte horretarako kudeaketa plana jasoko duen dokumentua osatu eta eragile eta ordezkariari helarazi. Dokumentu horrek urte horretan garatuko diren ekintzak, finantzabideak, epeak eta arduradunak zehaztuko ditu.

E.3.1.2. Urtero edo bi urtean behin, ordezkari publikoekin adostuta, planaren jarraipena egiteko bilera bat egingo da ordezkariekin eta gonbidatutako eragile eta norbanakoekin. Bilera honetan aurreko urtearen balorazioa eta hurrengo urterako plana aurkeztu eta eztabaidatuko dira.

E.3.1.3. Urteroko kudeaketa planetan adierazle-sistema zehatz bat osatuko da ekintzen betetze-maila neurtzeko.

E.3.1.4. Plangintza aldiaren amaieran ebaluazio orokorra egin eta balorazio txosten bat argitaratuko da.